

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua ez dago adin tarte zehatz baterako pertsoneri zuzenduta, baizik eta, elikagaiak manipulatzeko gai diren **pertsona guztiei zuzenduta** dago. Izan ere, pertsona hauek biztanleriaren gehiengoa da. Gainera, produktu hau **etxeetan** jakiak kontrolatu nahi dituzten pertsonentzat, **jatetxeentzat** eta **supermerkatuentzat** egokia da.

Familiek arazoak izaten dituzte jakiak erosterakoan, batzuetan pertsona batek egiten dituelako erosketak eta beste batzuetan beste batek. Horren ondorioz, gaizki-ulertuak egoten dira eta produktu batzuk erostea ahazten zaie edo beste batzuk birritan erosten dituzte. Gure gailuak arazo hau ekidituko du, eta gainera, iraungitze dataren berri emango du.

Jatetxeentzat oso inportantea da haien jakien egoeraren berri etengabe izatea, eta aldi berean beti jakin behar dute zeintzuk produktu dituzten eta zeintzuk amaitu zaizkien haien menuak prestatu ahal izateko. Gure produktuak argi batzuen bidez jakien iraungitze data hurbil dagoela edo jakien eskasia adieraziko du, jatetxeen eguneroko lana erraztuz.

Supermerkatuen kasua jatetxeen kasuaren antzekoa da. Gure produktuak jakien iraungitze data hurbil dagoela adieraziko duenez, supermerkatuak honetaz balia daitezke eskaintza bereziak jartzeko laster iraungiko diren jakietan.